DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza-jardueraren ebaluazio-programa

# DOCENTIAZ
# aplikazio informatikoaren eskuliburua

KALITATE ETA IKASKETA BERRIKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE CALIDAD E INNOVACIÓN DOCENTE
**IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE**

# AURKIBIDEA

1. DOCENTIAZ aplikazioa 3

2. Ebaluazio-eskaera 5

3. Irakaslearen autotxostena 11

# 1. DOCENTIAZ aplikazioa

UPV/EHUk irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko DOCENTIAZ programaren euskarri gisa aplikazio informatiko bat garatu du. Aplikazio honek UPV/EHUko datu-base instituzionalak ditu oinarri (batez ere GAUR) eta berari esker honakoak egin ahal dira:

a) Irakaslea bazara, ebaluazio-eskaera eta autotxostena bide telematikoz egin ditzakezu.
b) Ikastegiko Kalitate Batzordeko kide bazara, aldiz, irakasleen irakaskuntza-jarduerari buruzko txostena bide telematikoz egin ahalko duzu.
c) Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kide izanez gero, irakasleek, ikasleek nahiz Ikastegiko Kalitate Batzordeko kideek emandako informazioa ikus dezakezu. Banakako txostenak eta txosten orokorrak egitea ere errazagoa izango zaizu.

Ikasleen iritziak ere ikusgai egongo dira aplikazio honetan, horretarako GAURera daraman esteka bat ipini baita.

DOCENTIAZ aplikazioan Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren (IEZ) web orriaren bidez sartu behar duzu (http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shevdohm/eu) edo, bestela, zuzenean http://lgpx09.lg.ehu.es/Exp_Docentiaz.nsf helbidera jo.

Helbide honetan sakatzerakoan pantaila hau agertuko zaizu, LDAP kontuaren erabiltzailea eta pasahitza eskatuz.



## 2. Ebaluazio-eskaera

Erabiltzailea eta pasahitza sartu ostean, ondorengo leihoa izango duzu begien aurrean eta hor “Eskaera" botoia sakatu behar duzu.

1. irudia.




Hori egindakoan, pantaila honexek “Irakaslana ebaluatzeko eskaera” izeneko dokumentua aukeratu behar duzula adieraziko dizu.

2. irudia.




Jarraian, eskaeraren datuak agertuko dira automatikoki. Honako hauek hain zuzen:

i) Lehenengo laukian irakaslearen informazioa agertuko da, hau da, zure informazioa.
ii) Bigarren laukian, DOCENTIAZ programan parte hartzeko baldintzak betetzen diren ala ez agertuko da. Baldintzok betetzen ez badira, arrazoiak zeintzuk diren azalduko da. Aitzitik, baldintzok betez gero, irakaskuntza zama ikusgai egongo da ikasturteka ordenatuta.

3. irudia.




iii) Hirugarren laukian, "Autotxostena egiteko aukeratutako irakasgaia" izenburupean dagoen horretan, ebaluatu beharreko aldian emandako irakasgaien goitibeherako zerrenda bat aktibatuko da. Irakasgai guzti horietatik bat aukeratu beharko duzu, ondoren autotxostena egiteko egokiena dela deritzozuna hain zuzen.

4. irudia.



Irakasgaia hautatu duzunean, ebaluazio-eskaerako datuekin ados zauden ala ez adierazteko eskatuko zaizu.

5. irudia.




Akatsen bat antzematen baduzu datuotan, erreklamazioa aurkez dezakezu. Gero, erreklamazio hori IEZek gestionatuko du. Hurrengo irudian ikus daitekeen lez, “Datuekiko adostasuna” atalean “Ez” botoia sakatuz gero testu-koadro bat zabalduko da erreklamazio hori egin ahal izateko.

6. irudia.




Datuekiko adostasuna adierazten baduzu, berriz, autotxostena egiteko aukeratutako irakasgaiaren irakaskuntza-gida eransteko eskatuko zaizu.

7. irudia.



Kasuren batean okerreko dokumentua erantsiko bazenu, aukera izango duzu eranskin hori ezabatzeko. Ikus beheko pantaila:

8. irudia.




Era berean, oharrak ipintzeko atal bat ere badago. Bertan DOCENTIAZ programari buruz egokiak iruditzen zaizkizun iruzkinak egin ahalko dituzu.

9. irudia.




Azkenik, "Bidali" botoia sakatu. Hori egitean, eskaera erregistratu egingo da eta, irakaskuntza-gidarekin batera, Ikastegiko Kalitate Batzordearen buruari igorriko zaio.

10. irudia.



"Bidali" botoia sakatu eta berehala, honako mezu hau agertuko zaizu:

11. irudia.



# 3. Irakaslearen autotxostena

Autotxostena aktibatuta dagoela dioen mezu elektronikoa jasotzerakoan, beheko leihoan ageri diren LDAP kontuaren erabiltzailea eta pasahitza sartu behar dituzu:




Ondoren, ezkerreko menuan "Autotxostena" botoia sakatu behar duzu.

12. irudia.




13. irudiko pantailan "Autotxostena" aukeratu:

13. irudia.



Segidan mezu bat aterako zaizu "Editatu" botoia sakatzeko esanez eta hala egin beharko duzu.

14. irudia.




Autotxostenaren lau dimentsioak betetzeko goiko partean dauden erlaitzak sakatu behar dituzu (0 dimentsioa, 1 dimentsioa, 2 dimentsioa, 3 dimentsioa eta, azkenik, 4 dimentsioa)

15. irudia.



**0 dimentsioari** dagokionez, honako datuak behera kargatzen dira: irakaskuntza zama, irakaskuntza gaitasuna, kargu edo lizentziengatiko murriztapena eta arduraldia (orduak) Irakaskuntza zamaren eta irakaskuntza gaitasunaren batezbestekoak ere kalkulatu egiten dira.

16. irudia.




0 dimentsioa osatzen duten sei faktoreen datuak agertzen dira ondoren. Laguntza-botoiek faktore horietako bakoitza nola kalkulatzen den azaltzen dute.

17. irudia.



**3 Faktorea. Taldea eta maila bakoitzeko ikasle kopurua,** klik egin beharko duzu esaldi bakoitzean, informazio osoa ikus dezazun. Ikus 18. irudia:

18. irudia.




***Azkenik***, aplikatu beharreko faktorearen kalkulua egiten da (ikus 19. irudia). Gero hori batezbesteko irakaskuntza zamarekin biderkatuko da, ondoriozko irakaskuntza zama lortzeko.

19. irudia.



**1 dimentsioari eutsiaz** (**irakaskuntzaren plangintza eta koordinazioa)**, egokiak direla uste duzun laukitxoak markatzea eskatuko zaizu eta azalpenak emateko atal irekiak betetzea; betiere, gehienez ere bost lerro idatzita.

20. irudia.




**2 dimentsioko (irakatsi eta ikasteko prozesua)** *irakatsi eta ikasteko prozesuko jarduerak* atalean ere azalpenak emateko eskaera egiten zaizu, gehienez ere bost lerro erabilita.

21. irudia.



*Ikasketen ebaluazioa* atalean, aldiz, honakoa zehaztu behar duzu: erabilitako ebaluazio-metodo bakoitzak azken notan duen balioaren ehunekoa.

22. irudia.




*Irakaskuntzarako materialak eta baliabideak* atalean, irakasteko material edo baliabide garrantzitsutzat jotzen dituzunak biltzen dituen dokumentuaren kopia eskaneatua eransteko eskatuko zaizu.

23. irudia.



**3 dimentsioan (emaitzak)**, 1. atalean (*balora itzazu arrakasta tasak)* ikasturte bat hautatu behar duzu. Hori egindakoan, automatikoki, honakoak behera kargatuko dira: ikasleek lortutako arrakasta tasak eta izan duten bilakaera, taldeko eta mailako batezbestekoarekin alderatuta.

24. irudia.




Arrakasta tasak irakasgai-motaren arabera azalduko dira sailkatuta:

25. irudia.



2. atalean (*balora itzazu ikasleentzako iritzi inkestan jasotako emaitzak*), DOCENTIAZ aplikazioan ipinitako esteka erabiliz GAURera sartu behar duzu, bertan egoki diren txostenak ikusi ahalko baitituzu.

26. irudia.




Zuzendutako lan akademikoak aplikazio honetara behera kargatu ditzakezu zuzenean. Ikus pantaila hau:

27. irudia.




Edozelan ere, zuk zuzendutako proiekturen edo tesiren baten datuak ez badira agertzen, badago atal ireki bat datuok eransteko.

28. irudia.



Emandako eta jasotako prestakuntzaren atalean (29. eta 30. irudiak) bost atal ireki daude. Bertan, aukera izango duzu jarduera-mota hauei buruzko informazioa emateko, bai eta irakaskuntza berrikuntza eta hedakuntzarekin zerikusia duen oro ipintzeko ere. Halaber, eskatzen den hausnarketa ere bertan egin behar duzu (31., 32. eta 33. irudiak).

29. irudia.




30. irudia.



31. irudia.




32. irudia.




33. irudia.



34. irudian ikus dezakezun moduan, autotxostena egin ahala haren edukia gordetzen joan zaitezke.

34. irudia.




Autotxostena amaitutzat jo bezain laster, "Bidali" botoia sakatu behar duzu.

35. irudia.

